

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

42

IRAGARKIA, 2022ko abenduaren 19koa, Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Laminoria parke eolikorako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera, udalerrri hauetan: Iruraiz-Gauna, Arraia-Maeztu eta Donemiliaga (Araba).

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Laminoria parke eolikorako aurkeztutako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Kokapena: Laminoria.
- Eskatzailea: Aixear, S.A.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Iruraiz-Gauna, Arraia-Maeztu eta Donemiliaga (Araba).
- Haize-sorgailuen kopurua: 8.
- Instalatu den potentzia gordina: 40 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonala	UTM x	UTM y
P1	541820	4737450
P2	545200	4737850
P3	546420	4738380
P4	546650	4737840
P5	545230	4737200
P6	544980	4736390
P7	544060	4737000
P8	541920	4736700

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeit hamar eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbaitzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoen plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu/>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 19a.

Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria,
PEDRO RODRÍGUEZ DÍAZ.